

“BERBALAGUN”

**Helduen euskalduntze-alfabetatzea
suspertu eta euskararen erabilera
bultzatzeko egitasmoa - 2020**

-----O-----

BALANTZEA ETA JUSTIFIKAZIOA

AURKIBIDEA:

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- OINARRI NAGUSIAK:

- 3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK
- 3.2.- KRONOGRAMA
- 3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK
- 3.4.- ORGANIGRAMA

4.- BALORAZIO KUALITATIBOA ETA KUANTITATIBOA

5.- AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA

6.- GASTUAK, DIRU-SARRERAK ETA DEFIZITA

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: Berbalagun kanpainako koordinatzailearen txostena.
- II. ERANSKINA: Gernika-Lumoko Udala eta AEKren arteko hitzarmena (2020)
- III. ERANSKINA: Zabalkunderako euskarriak eta argazkiak

1.-SARRERA

2004an abian jarri zenetik mantendu egin den egitasmoa dugu eta iraun dezan ahaleginean gabilta. Aurreko urteetan izandako balantze positiboa eta emaitza ezin hobeak azpimarratzekoak izanik, 2020an, egin beharreko egokipenak bitarteko, “Berbalagun” hobetzeko osagarriak gauzatu ditugu kanpainan.

Duela hiru urte, 2017an, urte berezia izan zen Berbalagun proiekturako, “Gernika-Lumo eta inguruko ibilbideak” argitalpena kaleratzeko diruzko ahalegin nabarmena bitarteko, baina ez da gutxiago izan 2020a, “Euskaraldia” sustatzeko bidelagun garrantzitsua izan dugulako Berbalagun.

Jakina denez, pandemiak gizartearen bizitza guztiz baldintzatu du eta horrek derrigorrez izan du ondorioa Berbalagun proiektuan. Egitekoak zirenak ezin izan dira garatu batzuetan, beste batzuetan egokitu egin behar izan dira eta sare sozialak erabili dira bitarteko, eta izan dira asmatu beharreko jarduerak ere.

Oztopoak oztopo, partaideen gogoak eta antolakuntza aldetik egindako ahaleginak posible egin dute mintzapraktika dinamikak mantentzea.

2.- HELBURUAK

“BERBALAGUN” proiektu honekin lortu gura izan diren helburuak:

- Euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea.
- Euskara ikasleen motibazioa lantzea.
- Euskara ikasleengan suspertzea.
- Euskara ikasleen integrazioa bultzatzea.
- Euskara gaitasuna hobetzea.
- Euskaldunak erdaldunen integrazio prozesuan inplikatzeko.
- Gernika-Lumoko berbakera ezagutzera ematea.

Eta hori guztia, ESEPeren arabera moldatutako 2020ko Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzak oinarri:

Helburua estrategikoa: Transmisioa / ondorengoetaratzea.

Esparrua eta helburua:

3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)

3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea

- 3.8.2.2.- Helduen adin-taldea kontua hartu, Berbalagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak antolatu

5. Gune geografiko euskaldunenak

5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)

5.1.6. Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea

- 5.1.6.3.- Helduentzako ikastaroak eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, jostekoa, bitxigintza, dantza,...

Azpiekintzak:

- | |
|--|
| - Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa. |
| - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea |
| - Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua |
| - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu |
| - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu |
| - Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu |
| - Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu (hitzaldiak) |

3- OINARRI NAGUSIAK

Zutabe izan dugu Gernika-Lumoko Udala eta Gernikako AEKren artean sinaturiko hitzarmena; 2004an sinatu zen lehenengoa eta 2016an bigarrena; 2020an sinatu da azkena (**I. eranskina**) hurrengo urteetan luzatzekoa, egin beharreko lege egokipenak bitarteko. Arestian esan bezala, helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertu (ondorengoteratzeko helburu estrategikoa) eta euskararen erabilera areagotzea du helburu nagusizat.

AEK-rekin sinatutako hitzarmen hori zutabe nagusi, ikasturteka dago eratuta proiektua eta 2019-2020 ikasturteari dagokion memoria ere aurkeztu du AEK-k (**II. Eranskina**).

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

- **Eginbehar nagusiak.**- Aurreko urteetan finkatutako hobekuntzei eutsi zaie 2020an, egitasmoa gauzatu ahal izateko lanen sistematizazioa lortze aldera:
 - Talde eragilearen koordinazio-bileren aldikotasuna bermatu.
 - Kanpainan partaide diren mintzakideentzat zein hauen lagun hurkoentzat hileko programazio berezia eratu.
 - Kanpainarako mintzakideak erakartzearen, zabalkundea urtero egiteko sistema zehaztu.
 - Hileko Berbalagun-eko programazioaren berri emateko komunikazio-plantxoa eratu.
- **Dinamizaziorako ekintzak:**
 - Mintzalagun taldeak eratu (euskaldun zahar bat eta beste lau berbalagun trebagai; guztira 15 bat talde). Ahal izan den

neurrian mantendu egin da, konfinamendu sasoietan izan ezik.

- Tailerrak antolatu (berbalagunkideek lehentasuna izan arren, zabalik daude tailerrok edonorentzat).
- Irteerak antolatu (hilean pare bat irteera, ekologia, historia, ohitura edo abarrak lantzekoak). Konfinamendu sasoian ezin izan da burutu eta ateratzeko aukera izan denean taldeka eratu behar izan da jarduera hau.
- “Ezetz jakin” lehiaketa antolatu. Hogei bat galderen erantzunak asmatzen dituztenen artean zozketa egin eta saridun bat aukeratu da hilerok. Mantendu egin zen konfinamendua etorri zen arte. Horren ordez, Gernika-Lumoko “Egunean Behin” aplikazioan talde berezia sortu da, astero sari bat emanda.
- Euskal literaturaren inguruko tertuliak (dinamizatzailerak Onintza Enbeita). Martxora arte mantendu zen presentziala eta hortik aurrera online eskaini dira.
- **Azpiekintza bereziak:**
 - 2008an Berbalagun egitasmoarekin lotu zen ikastolen jaialdietara (Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats) joateko bidaien antolakuntza, guztira 5 jaialdi. Argi dagoenez, ezin izan da burutu jarduera hau.
 - 2020ko Mintzaeguna: honako ere ezin izan da gauzat pandemia dela eta.
 - 2020ko “hamaika orduko irakurraldia”, gure udalerrian ohiko bihurtu den ekitaldia, Euskararen egunarekin lotuta. Burutu egin da eta ahalegin berezia eginik gainera, larrialdi egoerak markatutako baldintzak errespetatzeko lan itzela eginda. Partaidetza itzela, urtero bezala.

- Berbalagunek urteetan zehar antolatutako irteera eta ibilaldietako informazio-fitxak bildu eta urteanitzeko argitalpen bat eratu zen 2018an (“Gernika-Lumo eta inguruak ezagutzeko ibilbideak”); 2020an horri beste 5 ibilbideetako fitxak gehitzeko lana bukat da.

3.2.- KRONOGRAMA

Ikusi II. Eranskinean koordinatzaileak mintza taldeen eraketari buruz eta egitasmoaren dinamizazioaz egindako txostena.

Jarduerak	Urt	Ots.	Martx	Apir.	Maia.	Ekain.	Uztail.	Abuz.	Irail	Urria	Aza	Abend
Ekintzak planifikatzea												
Boluntarioak biltzea												
Argitalpenerako 5 fitxa berri (prestatu)												
Argitalpenerako 5 fitxa berriak kaleratu												
Mintzasaioak antolatu												
2020ko zabalkundea												
Helduen ikastegiarekin lanketa berezia												
Eskolaratzea bideratzea												
Hitzaldiak												
Irteerak												
Jaialdi bereziak												
Jatorduetako taldeak												
Mintzataldeen saioak												
Talde eragilea (batz.)												
Datu baseak osatzea												
“Ezetz jakin” / “Egunean Behin”												
11 orduko irakurraldia												
Literatura tertuliak (Onintza Enbeita)												

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:


- Euskara Zerbitzua, egitasmoa diruz eta azpiegituraz hornitzeko.
- Gernikako AEK (egitasmoaren koordinazioa).
- Euskaltegiak (AEK euskaltegia eta AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia): datu baseak sortu zabalkunderako eta eskolaratzea bideratu.
- Busturialdean Euskaraz Bizi: egitasmoaren zabalkundea egin eta partaideak eta bolondresak bilatu.
- Euskara Batzordea (egitasmoaren bultzatzailea eta babeslea).
- Udaleko Hezkuntza Saila (ikastoletako jaialdi berezietarako bidaiak antolatzea).
- Zentroetako Guraso Elkarteak (Gurasolagun-erako)
- Helduen ikastegiko zuzendaritza taldea eta bertako ikasle elkarte

Baliabideak:

- Diruzkoak eta azpiegiturarakoak Udaleko Euskara Zerbitzuak jarriko ditu, 2019ko Kudeaketa Plana garatzeko aurreikusitako partidetatik eta azpiegitura aldetik Udalarenak erabiliz (Kultur Etxeko gelak,).
- Giza baliabideak:
 - Euskara Teknikaria I (Euskara Zerbitzua)
 - AEK-ko teknikaria
 - Mintzasaiotarako bolondresak (15/20).
 - Euskaltegietako zuzendariak (Talde Eragilean partaide).

3.4.- ORGANIGRAMA

Egitasmoaren funtzionamendurako eta jarraipenerako eraturako egitura hauxe da:



4.- BALORAZIO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Balorazio kuantitatiboa:

Eragin gura den unibertsoa 3.900 biztanlekoa izanik, xede taldea zehatz-mehatz 1.200ekoa da (euskara ikasten ari direnak gehi ikasle ohiak), gutxi gora-behera. Ekintza guztietako partaideak zenbatuta (tailerrak, irteerak,...), 200 bat dira eta mintza taldeetan zuzenean parte hartzen dutenak 80/90 (16 taldeetan banatuta). Xede taldearen %16,66 ingurukoa da parte hartzen dutenen kopurua.

Kontuan hartuta egitasmoak urteetan zehar izan duen bilakaera, oso positiboak dira datuak.

Balorazio kualitatiboa:

	1991 urtea		2001 urtea		2006 urtea		2011 urtea		2016 urtea	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Euskaldun zaharrak	8720	56,63	8180	56,33	10.552	67,87	10.486	67,40	11.300	%70
Jatorrizko elebidunak (*)	793	5,15	743	5,11						
Euskaldun berriak (*)	692	4,49	1173	8,08						
Partzialki euskaldun berriak (*)	1297	8,42	1458	10,04	2.779	17,87	1.955	12,56	1.875	%12
Partzialki erdaldunduak (*)	625	4,06	462	3,18						
Guztiz erdaldunduak	227	1,47	159	1,09	2.216	14,25	3.117	20,00	2.992	%18
Erdaldun zaharrak	3043	19,76	2344	16,14						
	15397	100	14519	100	15.547	100	15.558	100	16.167	100

Goiko koadroan jasotako datuetatik (ez dugu besterik), hurrengo hauek azpimarratu behar dira egitasmo honen xede taldeari dagokionean:

- 2016ko erroldako datuetan ez zen desberdintzen euskaldunen jatorria (zahar, jatorrizko elebidun edo euskaldun berri). Kopuru absolutuak gora-beherak izan ditu: 1991n 10.205, 2001ean 10.096, 2006an 10.552, 2011n 10.486 eta 2016an 11.300. Portzentajeak, berdin: 1991n %66,30, 2001ean %69,30, 2006an %67,87, 2011n

%67,40 eta 2016an %70. Hargatik, une honetan euskaldunen portzentajea mantendu egiten da (pixka bat igo).

- Ia euskaldunen kopurua gutxitzen joan da 2006tik hona: 2006an 2779 (%17,87), 2011n 1955 (%12,56) eta 2016an 1875 (%12). Agian, euskaldungora pasatu dira ia-euskaldunen multzotik eta ez da tarte horretan ia euskaldun berririk sortu. Hargatik, hementxe sendo ekitea dagokigu aurrerantzean Berbalagun egitasmoarekin.
- Erdaldunen kopuruak (guztiz erdaldunduak+erdaldun zaharrak) gora-beherak izan ditu: 1991n 3270 (%21,23) / 2006an 2.216 (%14,25) eta 2016an 2.292 (%18). Biztanleriaren kopuruak gora egin du azken bost urteetan, etorkinen eraginez ziur (une honetan 1.579 etorkin daude erroldatuta Gernika-Lumon, %10a gutxi gora-behera, eta 582 ziren 2004an) eta horiek potolotu dute erdaldungoaren kopurua.

5.- AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA

Kanpainaren oinarriak ondo errotuta daudela uste dugu, esparruko eragileen inplikazioa zuzena delako (udal euskaltegia, Gernikako AEK, dinamizaziorako hainbat elkarteren partaidetza –Goizale mendi taldea, Elai-Alai dantza taldea,...-). Beraz, eskema nagusia mantenduko da, Berbalaguneko Talde Eragilearen hausnarketa eta erabakiak aparte.

Bidean gauza berriei eutsi zaie (ezetz jakin lehiaketa egonkortu egin da, blog-ak gero eta eragin gehiago dauka,...) eta horietatik emaitza onak izan dituztenak ondo errotzeko ekin behar zaio.

Aurrera begira daukagun erronka nagusia bolondres/dinamizatzaile gazteak erakartzea da eta bizi dugun pandemia honen inguruan dinamika aproposak eta seguruak eratzea partaideentzat.

6.- GASTUAK, DIRU-SARRERAK ETA DEFIZITA

Gastuak

Egitasmoaren dinamizazioa –teknikaria-, bulego gastuak. (AEK, hitzarmena)		14.000,00
Dinamizazioa: tailerrak, ekitaldiak, hitzaldiak,.... Kopilaster	131,95	1.009,29
Kopilaster	40,11	
Kopilaster	15,37	
Kopilaster	821,86	
Onintza Enbeita (literatur tailerra)		185,50
Ibilbideen argitalpenerako 5 fitxa berri (moldatze lanen zati bat)		1.509,00
Ariane Arrien (zabalkundea)		53,00
Gastuak guztira		16.756,79

Diru-sarrerak

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza		901,97
Beste batzuk		0
Sarrerak guztira		901,97

Defizita

Gastuak		16.756,79
Sarrerak		901,97
Defizita guztira		15.854,82

Gernika-Lumon, 2020ko urtarrilean.

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre
Euskara Arloko Zinegotzia



Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Tek.

1. ERANSKINA

Gernika-Lumoko Berbalaguna

2019-2020 ikasturteko memoria

“Birusak ez gaitu mututu”

1. Sarrera

Aurten gure programaren 17. edizioa izan da, eta plangintzan helburuak eta ekintzabideak zehaztu genituen arren, COVID-19 birusak sortutako guztiak gure plangintza egokitzera behartu gaitu.

Halere, lehen momentutik, martxoaren 16tik arazoari aurre egin eta irtenbideak eta alternatibak eskaini ditugu, horrek, gainera, aukera berriak jarri ditu mahai gainean, besteak beste: modu telematikoan koordinatzea edota taldeak eta ekintzak online antolatzea.

Aipatzekoa da hasieratik ibili izan dela Pili Ibarra, baina aurten dinamizatzaile hasi dela Ane Elgezabal.

2. Koordinazioa

JARRAIPEN BATZORDEA

Osaketa:

- Bittor Zarrabeitia (euskara zerbitzuko teknikaria), Iñigo Magunaetxebarria (euskara zinegotzia), Josu Erkiaga (udal euskaltegiko zuzendaria), Ekaitz-Clemos (Busturialdeko AEK-ko zuzendaria), Pernan Basterretxea (Busturialdean euskaraz biziko partaidea) eta Ane Elgezabal (berbalagun dinamizatzailea).

Maiztasuna:

- Unitik martxoaren 13ra arte ez dugu aurrez aurreko jarraipen batzorderik egin.
- Alarma egoerak iraun duen bitartean, behin elkartu gara "jitsi" plataforma bidez: maiatzaren 18an, astelehenean. Ekaitz, Bittor, Iñigo, Edorta eta bostok.

ELKARLANA

Sustatzaileak ez diren beste eragileekin izandako harremana, besteak beste, Segundo Olaeta musika eskolakoekin, Busturialdeko HITZAkoekin, Oizmendi telebistakoekin, Aldaba aldizkariakoekin, herriko ikastetxeekin (eskolak eta institutuak), kultur ebxearekin, Elai Alai dantza taldekoekin, mendi zale taldekoekin, Gonzalez altzari dendakoekin, turismo bulegoko langileekin, Aratusteetako jai batzordearekin, herriko zenbait denda, jatetxe eta tabernarekin...

Hartu-emana modu askotakoa eta zabala izan da; batzuekin, eurek eskatuta, antolatu dituzten ekitaldietan parte hartu dugu. Busturialdeko HITZAK eta Oizmendi telebistak, batzuetan geuk eskatuta eta beste batzuetan eurek eskatuta, gure ekitaldien berri eman dute. Herriko zenbait jatetxek euren babesa ematen diote antolatzen dugun "Ezetz Jakin" lehiaketari, propagandaren truke lagun birentzako afaria ematen baitute. Hainbat dendek, erakusleihoetan, gure kartelak jartzen dituzte ikusgai eta herriko ikastetxeek gure lehiaketaren zabalkundea egiten dute.

Bestalde, jai batzorde batzuek kontuan edukitzen gaituzte eta egitarauan agertzen gara irrintzi erakustaldia egiten, Aratusteetan esate baterako.

3. Parte hartzaileak

KOPURUAK ETA TIPOLOGIA

Ikasturtean, mintzataldeetan orotara, 75 lagun ibili dira; hala ere, 15 gehiago ere izan dira.

- Bidelariak: 57, % 76
- Bidelagunak: 18, % 24
- Batez besteko adina: 57
- Emakumeak: 52 % 69
- Gizonezkoak: 23 % 31

Altak eta bajak

Dena den, sartu-irtenak egon dira: 19 baja eta 15 alta izan ditugu, hain zuzen ere.

Utzi dutenen arrazoiak ondokoak izan dira:

- Denbora falta.
- Beste lan batean hasi naiz.
- Umea jaio berria.

PARTE HARTZAILEEN BALORAZIOA

Urtero bezala, parte hartzaileen asebetetze maila neurtu dugu. Martxoaren 9an abiatu genuen galdetegia, alarma egoera ezarri zen. Horren aurreko errealitatearen gainekoak izan dira erantzunok.

Gernikan, parte hartzaileen %39k erantzun du, beraz lagin esanguratsua dugu eskuartean.

Parte hartzaileek oso ondo/bikain baloratu dituzte: taldearen giroa eta parte hartzea. Horretaz gain, dinamizatzailearekin komunikazioa bermatuta dagoela adierazi dute.

Hobetzekotan hauxe aipatu da: batetik, berbalagun direnetik gehienek euskara gehiago erabili arren, oraindik handitzeko tartea ikusten dute, baita taldearen euskara maila eta puntualitatea ere; bestetik, batzuek ekintzen gaineko proposamenak egin dituzte: mendi irteera laburragoak, kirola eta jostigintza tailerra.

Parte hartzaileen balorazioan orokorra (9,2) **BIKAIN**.

TALDEAK MARTXOREN 13ra ARTE

Talde zk	Eguna	Hasiera ordua	Tokia	Zenbat lagun	Talde izaera	Oharak
1	Astelehenetan	10:00etan	Kultur etxearen aurrean	11	Kultura kontsumitz ailea	
2	Astelehenetan	19:00etan	Bidaguren gozotegia	7		
3	Astearteetan	09:30ean	Kultur etxearen aurrean	3	ibiltaria	
4	Astearteetan	14:15ean	Bakeder kafetegian	8	Bazkaltiarak	
5	Astearteetan	16:00etan	Auzokoa kafetegian	6	Kafea hartzeko	
6	Astearteetan	17:30ean	Kultur etxearen	7	ibiltaria	

			aurrean			
7	Asteazkenetan	19:30ean	Auzokoa kafetegian	5		
8	Asteartean	20:00etan	Lagun-etxe tabernan	11		
9	Ostegunetan	10:00etan	Picasso kafetegian	10	Berria tertuliak	Mundua konpontzeko tertuliak
10	Ostegunetan	11:00etan	Faisan kafetegian	8	Kafearen bueltan	
11	Ostirala	20:00etan	Faisan kafetegian	6	poteoa	
12	Larunbata	12:00etan	Faisan kafetegian	7	Kafea hartzeko	

TALDEAK MARTXOREN 16TIK AURRERA

Martxoaren 16az geroztik, online taldeak aktibatu eta bideo hitzorduak bideratu dira. Horrek dinamizatzaileari aparteko lana ekarri dio:

- Jarraipen estuagoa egin behar izan du. Parte-hartzaile guztiak harreman zuzena izan du: deiak, bideo-deiak... Laguntzeko, komunikazioa eta enpatia handia erakutsi behar izan du. Krisi honek, ordea, erakutsi digu mintzapraktika egiteko programa izateaz gain, pertsonen arteko harreman sarea ere badela.
- Onlinen parte hartzerantz animatzeaz gain, baliabide teknologikoen azalpenak jaso eta eman behar izan ditu. Ez hori bakarrik, talde guztietan behin baino gehiagotan parte hartu behar izan du.

Eskaintza egin arren, parte hartzaile batzuek ez dute online dinamikan parte hartu. Hauek izan dira adierazitako arrazoiak: etxeko zaintza, teknologiekiko abilezia eza, denborarik ez, lana, aurrez-aurre nahiago izatea...

4. Zabalkundea

MARTXOAREN 13ra ARTE

Parte hartzaileak erakartzeko, Praktikatuz zerbitzuak kanpaina eta euskarrien diseinua egin ditu, horiek guztiak dinamizatzaileon baliabide bankutik deskargatu daitezke. Hauek dira ikasturte honetan dinamizatzaileon eskura jarritakoak:

- **Izena emateko kanpainak**
 - **Ikasturte hasierako kanpaina:** *Euskaraz praktikatu nahi? Lagun berriak egin nahi?* kartela, esku-orriak, bannerrak, whatsapperako mezuak.
 - Aurkezpenetarako powerpointak eta bideoak.
 - Urtarrilerako indartze kanpainako kartela.
- **Bestelako euskarriak ere diseinatu dira**

- Xede taldeak sustatzeko kartelak: Mendilagun (4 txantilo), Irakurzale klubak, (7 txantilo), Paseatzeko taldeak (4 txantilo)
- Bidelagunak erakartzeko kanpaina.
- Egunean Behin aplikazioan taldeak sortzeko kanpaina.
- Praktikatutxartela. Lekuan lekuko deskontuak lortzeko.
- **Baliabide didaktiko berriak**
 - Euskara ikasleen artean gure programa zabaltzeko eta sustatzeko programazioak sortu ditugu: B1 eta B2/C1erako material sorta bana, hain zuzen ere.
- **Merchandisina**
 - Mintzodromoetan edota ekintzetan banatzeko: koadernotxoa eta boligrafoak.
 - **Lehiaketetan edo laguntzaileei oparitzeko: motxilak, euritakoak eta agendak.**
 - **Parte hartzaileentzako txapak.**

MARTXOAREN 16tik AURRERA

Alarma egoeraren lehenengo momentutik lasaitasuna transmititu nahi izan da, eta Praktikatutxartelatik zabalduzako mezuari heldu zitzaien: BIRUSAK EZ GAITU MUTUTUKO! Parte hartzaileen egoerak ezagututa, online dinamikari heldu zitzaien, alternatibak eskaini ahal izateko.

- **Zabalduzako euskarriak**
 - Euskaraz online praktikatutxartela nahi? Kartela
 - Praktikatuzko baliabide zerrenda. Kartela / loturak sarean
 - Zer egin dezaket etxean geratu behar badut? Aholkuen kartela
 - Online aritzeko azalpenak (bideoa eta argibide dokumentua)

IKASTURTE OSOAN HEDABIDEETAN IZANDAKO AGERPENAK

Data	Zergatik	Hedabidea	url
hilero	"Ezetz jakin" lehiaketako irabazlearekin argazkia	Oizmendi irrati-telebista, Hitza	https://www.oizmendi.eus/herriak/26-herriak/gernika-lumo/1913-gema-ibarluzek-irabazi-du-abenduko-ezetz-jakin-lehiaketa https://busturialdea.hitza.eus/2020/02/06/amets-ajuriagogeaskoa-uruburuk-irabazi-du-urtarrileko-ezetz-jakin-lehiaketa/ https://busturialdea.hitza.eus/2020/03/05/maialen-basterrarentzat-izan-da-otsaileko-ezetz-jakin-

			lehiaketako-saria/
Abenduaren 3an	11 orduko irakurraldia	Correo, Hitza, Oizmendi	https://www.elcorreo.com/bizkaia/costa/euskararen-egunaren-nondik-20191106211931-nt.html
maiatzean	Mendi-irteera iragartzen	Oiz Mendi irrati-telebista, Hitza	https://www.oizmendi.eus/herriak/26-herriak/gernika-lumo/2148-berbalagunek-bost-ibilbide-berri-gehitu-itu-gernika-lumo-eta-inquruak-ezaqutzeko

TRESNAK

Hauek dira erabili ditugun komunikaziorako tresnak:

- **Bloga**
- **Sare sozialak:** facebook
- **Posta**
- **Whatsapp** Hasieratik whatsapp erabili izan dugu taldekideen arteko komunikazioa bermatzeko. Baina konfinamendu garaian ezinbesteko lantresna izan da.

5. Ekintza osagarriak

MARTXOAREN 13ra ARTE

- **Hamaika orduko irakurraldia** (300 lagun inguru). Abenduaren 3an.
- **Mendi-irteerak** hilero, azken larunbatean. Jende kopururik txikiena 30 lagunena izan da eta 11-14km inguruko irteerak egin ditugu.
- **"Ezetz jakin" lehiaketa** hilero. 50 erantzunetik gora jasotzen dugu beti.
- Irrintziaren inguruan egindako dokumental mamitsua, ERRAIAK dokumentala, eman genuen Kultur-Etxean. Jende ugari egon zen aretoan, baina ez aurreko urtean beste, dokumentala askok aurreko urtean ikusi baitzuen. Ostean, bertan, irrintzi ikastaro arina eman zuen Amaia Garcia berbalagunek. Pozik atera ginen denok aretotik.
- **"Mundua konpontzeko tertuliak"** ostegunero Onintza Enbeitaren gidaritzapean. BERRIA arakatzuz tertuliak izaten dira. 8 bat lagun elkartzen dira Picasso tabernan. Oso tertulia aberatsak izaten dira.
- Aratuste domekan, marro jantzita, **irrintzi erakustaldia** kultur etxeko balkoitik. Egitarauan sartzen gaituzte, eta lan-saritzat pintxoak eta edaria izaten dugu. Aurten 12 lagunek hartu dute parte.
- Alarma egoera dela eta ekintza hauek bertan behera utzi behar izan ditugu:
 - Mendi irteerak.
 - "Ezetz jakin" lehiaketa.

MARTXOAREN 16tik AURRERA

- 2020/05/03 **TOPAKETA BIRTUALA** Beste herrietako dinamizatzaileekin batera antolatu genuen. Gure programako parte hartzaileekin batera hainbat herrialdetako

euskaldunak batu ziren ekimen honetan.

- **Leihotik ikusitakoari argazkia** atera eta bidali digute facebookean eta blogean argitaratzeko.
- **"Egunean behin"** jokoari, Gernika-Lumoko berbalagun talde bat sortuta genuenari, sua eman diogu eta astero-astero irabazleak Onintza Enbeitaren eskutik saria jasotzen du.

6. Aurrera begira

Urte gorabeheratsua izan(zo) dugu, oraindik orain ez dakigu uda osteko egoera nolakoa izango den, baina argi dago mintzapraktika era telematikoan egiteko aukera landu behar dugula. Hori dela eta, datorren ikasturterako berrikuntza hauek aurreikusten ditugu:

- **Online taldeak.** Aurrez aurreko taldeen eskaintza osagarri moduan zabalduko dugu. Horrek erraztuko digu berriro ere emergentzia egoera suertatuz gero, arinago erantzun ahal izatea.
- **Ekintzak online.** Aurten abiatu diren beste ekimen batzuk ere jorratzen jarraituko dugu: Autu-Mautuak, topaketa birtualak, lehiaketak...

Irailean, 2020-2021 ikasturteko plangintzan diseinatzen dugunean berrikuntza horiek txertatuko ditugu.

2. ERANSKINA

**“AEK EUSKARAZ KOOP. ELKARTEA”
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA,
“BERBALAGUN” EGITASMOA
GARATZEKO**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hogeiko azaroaren 11n eta Udal Idazkaria naizen Itxaso Tregueros Rojo andrearen aurrean.

BILDUTA

Batetik, Mertxe Mujika Balanzategi Andrea, adinekoa eta NAN zbk. 78.864.768, AEK Euskaraz Koop. Elkartearen izenean arituz (IFK: F-95222816).

Bestetik, Jose Maria Gorroño Etxebarrieta Alkate jauna (NAN zk. 72243666-E), Gernika-Lumoko Udalaren izenean (helbidea: Foru Plaza 3. zk./ I.F.K.: P-4805500-H) jarduten duelarik.

AURREKARIAK

I.- Diru-laguntzen Lege Orokorreko (38/2003, abenduaren 17koa) 28. Artikuluaren arabera, hitzarmenak izango dira diru-laguntza mota hauek bideratzeko ohiko tresna eta, bertan (edota ebazpenean), emandako laguntzaren baldintza eta konpromisoak ezarriko dira.

II.- Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2020ko azaroaren 4an egindako bilkuran, besteak beste, 14.000 euroko diru-laguntza ematea eta dagokion hitzarmena sinatzea onartu zuen.

III.- Aipatutako diru-laguntza MINIMIS laguntzen baldintzak betetzen ditu, UE 1470/2013 araudian arautzen denari jarraiki.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen, 2003ko Kudeaketa Planarekin batera, horren bitartez hiru helburu estrategiko landu asmoz:

- 1. Helburu estrategikoa: euskara ondorengoetaratzea.

- 2. Helburu estrategikoa: euskararen erabilpena.
- 3. Helburu estrategikoa: euskara elikatzea.

Plan Estrategiko horren magalean, Gernikako AEK Euskaraz Kooperatiba Elkartearen arduradunek eta Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Sailak elkarlanerako hitzarmena sinatzea erabaki zuten 2004an, “Berbalagun” proiektua gauzatu ahal izateko. Aipatu hitzarmena luzatu izan da urtero gaurdaino, bere helburu eta konpromisoei eutsiz.

II

Orduko hitzarmenean aipatzen izan dena berretsi nahi da hemen: “Gernika-Lumon euskararen normalizazio ahaleginean lehentasuna euskararen erabilerak baldin badauka ere, ezin dugu inolaz ere ahaztu helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA eta berau suspertzeko asmoarekin idatzita dago proiektu hau. “

III

Bidean utzi ditugu 2008-2013 eperako Plan Estrategikoa, 2014-2018 epekoa eta indarrean daukagu orain 2019-2022 epeko ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana). Beraz, urteroko Kudeaketa Plani jarraiki, 2020koan ere leku berezia eta lehentasunezkoa dauka “Berbalagun” proiektuak, urteetan zehar erantsitako hainbat ekintza eta jardueraz apainduta.

IV

Beraz, Gernika-Lumoko Udalak eta AEK Euskaraz Kooperatiba Elkarteak, elkarlanerako honako HITZARMENA sinatzen dute eta, horren barruan, adosten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehen.- AEK Euskaraz Kooperatiba Elkartearen Gernikako ordezkariak, 2014an hartutako konpromisoa berretsi nahi du, “Berbalagun” egitasmoa indarberrituta 2020an gauzatzen jarraitzeko.

Konpromiso eta bete-behar horien artean, hurrengoak dira azpimarratzekoak:

1.- Teknikari lanak betetzeko pertsona bat liberatuko du 530 orduz, irailetik ekainera bitartean, ikasturteak iraun artean.

2.- Teknikari horrek hurrengo funtzioak beteko ditu nagusiki:

- Aurreproiektuan aintzat hartu den Talde Eragilearen dinamizazioa.
- Talde Eragilea eta Euskara Batzordearen arteko zubi lanak betetzea.
- Talde Eragilearen ebatziak gauza daitezten gestioak burutu, azpiegitura beharko den kasuetan Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean arituz.

3.- Berbalagun proiektua ikasturteka antolatzen denez, urtero ekainaren azkenerako txosten orokor bat aurkeztuko dio Gernikako AEK Elkarteak Udalari, ikasturtean garatutakoaren balorazioarekin.

Bigarrena.- Aurreko klasusulan adierazitakoarekin bat, Berbalaguneko Taldea Eragilea hurrengoek osatuko dute:

- Berbalagun egitasmoaren dinamizatzaillea/teknikaria.
- Gernikako AEKren ordezkaria.
- Aita Villasante Udal Euskaltegiko ordezkaria
- Busturialdean Euskaraz Bizi Elkarteko ordezkaria.
- Udalaren izenean Euskara Zinegotzia eta Euskara Zerbitzuko teknikari bat.

Bigarrena.- Gernikako AEK Elkarteak, lehenengo klausularen arabera burutuko dituen lan guztiekiko txosten bat aurkeztuko dio Gernika-Lumoko Udalari hiru hilabeterik behin, aldeztatik txosten horren berri Berbalaguneko Talde Eragileari emanda, berau izango baita proiektuaren jarraipena eta zaintzaren ardura izango duena.

Hirugarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, “Berbalagun” proiektuarekiko hurrengo konpromisoak hartu ditu:

1.- Talde Eragilean parte hartzea, Euskara Zerbitzuko Teknikari bat eta Euskara Zinegotzia partaide izanik.

2.- Proiektua gauzatzeko beharko liratekeen azpiegitura (tailerrak, hitzaldiak eta taldekako jarduerak antolatzeko lokalak) eta gainerako baliabideak eskaintzea (fotokopiak, megafonia, kartelak,...).

3.- 2020ko aurrekontuan 18.500 euro burutzea egitasmo honetarako, hurrengo era honetara banatuta:

A).- AEK Euskaraz Kooperatiba Elkarteari diru laguntza ematekoa, 14.000 euro (proiektuaren dinamizatzaile/teknikariaren ordainsaria, antolaketarako azpiegitura -ordenagailu, telefono, posta, gutun azal eta abarretako gastuak).

B).- Talde Eragilearen ardurapean, Gernika-Lumoko Udaleko aurrekontutik kudeatuko den partida, tailerrak, ikastaroak, irteerak eta abarrak antolatzeko gastuetarako 4.500 euro (kartelak, publizitatea,...)

Laugarrena.- AEK Euskaraz Kooperatiba Elkarteari ematekoa den diru laguntza, 14.000 euro, hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean ordainduko zaio ordainketa bakar batez. Diru laguntza hau jaso aurretik, 38/2003 Legeak eta honen araudiak zehazten dituzten baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du:

- Diru-laguntzak lortzea galarazten duten egoeretan ez egotearen ardurapeko aitortpena; hain zuzen ere, 38/2003 Legeko 13. artikuluko egoeretan ez egotearena.
- Gizarte segurantzarekiko betebeharretan egunean egotearean ziurtagiria (agiri hori udalak berak lortzeko baimena eman ahalko dio LH-k).
- Zerga betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria (agiri hori udalak berak lortzeko baimena eman ahalko dio LH-k).

Bosgarrena.- Diru laguntza zuritzea

Emandako diru-laguntza 2020 urterako da. Urtea amaitu eta hilabete naturaleko epean (2021eko urtarrilaren 31rako) BBE-k **justifikazio kontua**

aurkeztu beharko du, jasotako diru-laguntza justifikatze aldera. Justifikazio kontua 887/2006 Errege Dekretuko 72. artikuluan xedatu moduan aurkeztu beharko da, bertan agertzen diren memoriak, agiriak eta frogagiriak aurkeztuz.

Gernika-Lumo-ko Udalak emandako diru-laguntza beste diru-laguntzekin bateragarri izango da, betiere gainfinantzazioa ez badago.

Diru-laguntza zuritzeko betebeharrak ez betetzekotan, 38/2003 legeak arautzen duen itzultze prozedura jarriko litzateke martxan.

Seigarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da lau urteko epean, hau da 2020-tik 2023ko abenduaren 31ra arte, betebeharrak finantzarioen aldetik urtero egokipenak aho batez adosteko aukerarekin. Indar epea igaro baina lehen, sinatzaile biek adostuko dute akordioa luzatu ala egoera berriari egokitu beharra.

Zazpigarrena.- Hitzarmenak iraungitzen dira beren xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiren bat izateagatik. Suntsiarazteko arrazoiak dira:

- a).- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
- b).- Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.
- c).- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzailerari, epe jakin batean bete ditzan ez-betetzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, zuzendu zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoi dagoela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Hitzarmena arrazoi horrengatik

suntsiarazten bada, eragindako kalteen ordaina eman ahal izango da, hala aurreikusi bada.

d).- Hitzarmena deusez deklaratzeko duen erabaki judizialagatik.

e).- Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazburuan aipatutako leku eta datan.



ALKATEA,

Jose María Gorroño Etxebarrieta

AEK Euskaraz Koop. Elkartea

Euskaraz, Koop. E.

F-95222816

Mertxe Mujika Balanzategi

IDAZKARIA,



Itxaso Trigueros Rejo

3. ERANSKINA

Zabalkunderako euskarriak eta argazkiak



ZER DA BERBALAGUN ...?

Berbeak berak dimoena, herbetako laguna izatea. Euskaldun zahar eta barriak batu eta gure euskerea, erabileraren bitartez, suspertzeko egitama da BERBALAGUN.

NORENTZAKO DA BERBALAGUN...?

Euskerea ikasten zabilzenontzat eta alkarrizketa bat euskeraz egiteko gauza zarienontzat, baita inoz euskerea ikasten hasi eta erribidean geratu behar izan dozuenontzat eta betirik euskeraz dakizuenontzat be. Euskaldun zaharren parte hartzea ezinbestekoa da arlo honek aurrera egin eta Gernika-Lumon euskerak bizirik iraun dagian.

ZELAN EGINGO DOGUN

Berba-talde txikietan banatuko dira parte hartzaileak eta taldeak berak erabagiko dau zein egunetan, non eta ze ordutan alkarru. Eciadea, zaletasunak eta ordutegia izango dira taldeak osatzeko erizpide nagusiak.

Astean behin alkarruko dira kirola zein irteerak egiteko, kafea hartu edo ipuinak kontatzeko... Labur esanda, euskerea erabiliz euskeraz bizi ahal izateko.

IZENA EMON EDO INFORMAZINO GEHIAGO JASOTZEKO

Gernikako AEK euskaltegia Tl. 946257710 / 946253596

Aita Vilasante Udal euskaltegia Tl.946270211

Busturialdean Euskeraz Tl. 627260434



berbalagun

Euskerara bada eustaldirun egiten geratuena egun daigun lotisa barik daiguna

Nik zuri, zuk niri berria eginez alliam, lagun bat irabazi eta euskeraz itasi

Erdarara eraz jaten dazula? Ekimaren ekineraz lortzen da oihitorea

Euskeraz badakizu laguntza beste batzuei egiten

Euskeraz egun gura badazu erdi eta egizu geugaz!

Ez dakizula zer dan Berbalagun? Jakin gura badazu erdi eta berria egun daigun

Euskeraz berria egiteko zurtasunik ez daukazula?... bertan detsa, etan geugaz!





EUSKAL ERROMERIA

MAIATZAREN 27an
20:00etan
MARTITZENA

PASIALEKUAN




LAGUNTZAILEAK



JAIETAKU ZAPIA EKARRI



segundo olaeta
musika eskola
Gernika-Lumoko Udalak



berba  lagun

